

EAJ-PNVk berriro salatu du EH-Bilduren aurreikuspen falta, Aiarako udal igerilekuen irekiera atzeratu ostean

PRENTSA OHARRA – NOTA DE PRENSA
*Alderdi jeltzaleak deitoratu egin du 2025eko azarotik ezagutzen diren
jarduera tekniko batzuk apirilaren amaierara arte izapidetu ez izana*

Aiara, 2026ko ekainaren 1a. – Udaren etorrera eta udal igerilekuen irekiera dira urtero Aiarako bizilagunek gehien espero duten zerbitzuetako bat. Hala ere, **Aiarako Udaleko EAJ-PNV Udal Taldeak gogor kritikatu du EH-Bilduko Gobernu Taldeak Ibagueneko udal-instalazioen irekieran iragarritako atzerapena, hasiera batean ekainaren 13rako aurreikusita eta azkenean 20ra arte atzeratuta.**

Alderdi jeltzalearen ustez, atzerapen horrek agerian uzten du, berriz ere, Udal Gobernuaren "planifikazio eta aurreikuspen falta"; izan ere, Udalak, 2025eko azaroaren 5etik, udal-aparejadoreak egindako txosten tekniko bat zuen, eta bertan zehazten ziren denboraldi honetan igerilekuak normaltasunez ireki ahal izateko egin beharreko esku-hartzeak.

"Egoera horren larriena da Udalak duela urte erdi baino gehiagotik bazekiela zer egin behar zen, eta, hala ere, ez zuen aurrekonturik eskatu eta ez zituen kudeaketak hasi apirilaren 21era arte", salatu du **Gentza Alamillo** EAJko bozeramaileak. "Emitza agerikoa da: ez dira garaiz iritsi eta ondorioak Aiarako bizilagunek ordaintzen dituzte berriro", gaineratu du.

EAJ-PNVk udal langileek egindako lana nabarmendu nahi izan du, denboraldiaren hasierari begira instalazioak prest egon zitezten. Azaldu dutenez, ohiko lanak eta zuzenean Udalaren mende zeuden lanak ia amaituta zeuden, eta egiteke zegoen obrarekin lotutako jarduketek eragin dute, hain zuzen ere, irekiera atzeratzea.

Era berean, jeltzaleek gogorarazi dute hasiera batean aurreikusitako irekiera data bat zetorrela **Ikastolen Jaiarekin**, eta egun hori bereziki garrantzitsua dela udalerriko familia askorentzat. "Data seinalatu eta denek ezagutzen zuten. Hain zuzen ere, horregatik da ulergaitzagoa gauzak behar besteko aurrerapenarekin egin ez izana", deitoratu du

Alamillok.

Atzerapenek markatutako kudeaketa

Alderdi jeltzalearen ustez, gertakari hori agintaldian bizi izandako beste egoera batzuei **PRENTSA OHARRA – NOTA DE PRENSA** gehitu behar zate, espedienteen antolatetarak eta jarraipenik ezaren ondorioz udal zerbitzu eta azpiegituretan izandako atzerapenei, hain zuzen ere. "Ez gara azken orduko ustekabeaz ari. Duela hilabete batzuetatik identifikatuta zeuden eta garaiz izapidetu ez ziren jarduera teknikoez ari gara", berretsi du bozeramaileak.

Era berean, EAJ-PNV kezkatuta agertu da Pruden Otegi EH-Bilduko alkatearen gobernu taldeak herritarren egunerokotasunari zuzenean eragiten dioten gaitan ematen duen inprobisazio irudiagatik. "Udal-kudeaketak plangintza, aurrea hartzeko gaitasuna eta erantzukizuna eskatzen ditu. Ezin du azken orduan etengabe funtzionatu", adierazi du Alamillok.

EAJ-PNVk koalizio abertzalearen udal gobernuari eskatu dio zerbitzu publikoen kudeaketan jarrera arduratsuagoa eta zorrotzagoa izateko. **"Aiarak planifikatuko duen, arazoei aurrea hartuko dien eta seriotasunez kudeatuko duen Gobernua merezi du. Ez da zentzuzkoa hain zerbitzu garrantzitsuek atzerapenak izatea aurreikuspen falta nabarmenagatik", bukatu du Gentza Alamillok.**